



III MANUEL LARRAMENDI IKERKETA SARIA

Manuel Larramendi ezaguna izan arren, batez ere, euskararen lehenengo gramatika argitaratzeagatik eta, era berean, Hiztegi hirukoitza osatzeagatik, beste jakintza-gai batzuetan ere Euskal Herriarentzat garrantzi handia izan duten obrak idatzi zituen, *Corografía de Guipúzcoa edo Sobre los Fueros de Guipúzcoa*, esate baterako, nahiz lan horiek gordean edo zabalkunde egokirik gabe izan diren orain urte gutxi arte.

Jakintsu andoaindarrak zabalduko ezagutzaren ildoan, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak dei egiten du historia, hizkuntzalaritza, filologia, etnografia, zuzenbidea, zientzia politikoak eta gisako beste jakintza-gaietan ikerketa egin eta zabal-kundeko euskarriren batean gauzatzeko diru-laguntza lehiaketan esku hartzera. Jakintza-gai horiek Euskal Herrikoak edo Euskal Herriari buruzkoak beharko dute eta bereziki aintzakotzat har-tuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoari buruzkoak izatea, baina nahitaezko baldintza izan gabe.

Jarraian datozenak dira deialdiaren xehetasunak eta aipatu diru-saria eskuratzeko bete beharreko baldintza eta arauak:

LEHENA.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua historia, hizkuntzalaritza, filologia, etnografia, zuzenbidea, zientzia politikoak eta gisako beste jakintza-gaietan ikerketa egin eta ikerlan horiek argitaratzeko diru-laguntza ematea da.

Ez da, beraz, soilik historialari edo filologoei zuzentzen zaien deialdia, jakintza-adar horietan ikerketa egin eta zabalkundea behar bezala egiteko gaitasunik duen ikerlari ororentzat egin-dakoa baizik.

Ikertuko diren gaien aukera bi ataletan banatzen da:

1. Norberak hauta eta epaimahaiari aurkez diezaion ikerkizuna, beti ere Manuel Larramendik berak landuriko jakintza-ada-rren bati dagokiona, edo edukiz bateragarriei, eta zabalkunde eta irakurzaletasun irizpideei erantzungo diena.
2. Ondoko gai jakin hauetarikoa:
 - 🐾 Patrizio Orkaiztegi euskaltzalearen biografia (XIX-XX).
 - 🐾 Literatur gipuzkeraren jaiotza eta bilakabidea (1745-1936).
 - 🐾 Larramendiren ekarpena euskararen erabilera suspertzeko ildoan.
 - 🐾 Espainiako erresuma eta euskaldunen ekarpena:
 - Euskal harginak Gaztelako lurretan barrena.
 - Itsas-zamaketari euskaldunak Ameriketan.
 - 🐾 Emakumearen egintza Historian:
 - Emakumea Euskal Herriko ezkontza hitz-emate auzietan.
 - 🐾 Emakumearen errepresentazioa euskal testuetan.

BIGARRENA.- Ikerlanen ezaugarriak

1. Ikerlanak euskaraz landu eta idatzi edo atondurikoak izango dira. Horrenbestez, ezin izango da itzulpenik aurkeztu eta epaimahaiak gutxieneko idazkera edo osakera mailakotzat irizten ez dituen lanak atzera botako ditu. Dena den, jato-rrizko testuen iruzkina egiten denean, testu horiek jatorrizko erdaran aldatu ahal izango dira, epaimahaiak besterik adie-razten ez badu, behintzat.
2. Esan bezala, ikerlanen xedea Manuel Larramendik bere bizitzan zehar landu zituen jakintza-adarretakoren batean ikertzea izango da, bai jakintza-gai horiek bere orokortasu-nean hartuta, bai ikerkizunak Larramendiren mendeari edo hark egindako lanei buruzkoak direnean.
3. Ikerlariak aintzat hartu beharko du, ikerketaren emaitza ezagutzera emateko euskarria zabalkunde lana eraginkorki betetzen duen edozein izan litekeela: paperezko liburua, argitalpen digitala, ikusentzunezko edozein formatu –baita teknologia berrietakoak ere–, antzezlanak, baina aurkezten duen egitasmoan adierazi egin beharko du bereziki euskarri horietakoren batean zabaltzeko xedez egina ote den. Dena den, ikerlanaren luzera mugatze aldera, euskarri idatzian, 2.100 karaktere inguruko orrika kontaturik, gutxienez 100 orrikoa izango da.
4. Lehenetasuna eman ahal izango die epaimahaiak Euskal Herriaren baitako irismen geografikoa duten ikerketei, bai hedadurari dagokionez bai ikerkizunaren jatorriari dagokionez ere, eta aukera horretan oso aintzakotzat izango ditu Gipuz-koari dagokionez Larramendik landuriko jakintza-gaiekin zerikusirik dutenak.
5. Epaimahaiak aintzakotzat izango du, berebat, egitasmoak zenbateraino egin dezakeen zabalkunde lana aditu edo har-tzaile oso jantzien esparrutik haratago.
6. Ikerketa egitasmoak ikerlari bakarrekoak izan daitezke edo lantaldean buruturikoak.

HIRUGARRENA.- Saria

Epaimahaiak 6.000 €-ko saria emango du, baina hori jarraian adierazitako epe eta baldintzetan eskuratuko du ikerlariak:

- 🐾 % 40, epaimahaiak saria ebazten duen unean.
- 🐾 Gainerako % 60a, epaimahaiak ikerlana aztertu, ontzat eman eta ordaintzea onar dezanean.

Beraz, azken diru-kopurua eskuraturiko ikerlanaren edukia aztertu ondoren erabakiko du epaimahaiak, eta bigarren ordain-ke-tarik egin gabe utzi ahal izango du egitasmoa neurri batean ala guztiz betegabetzat iritiziz gero.

Era berean, Manuel Larramendi Ikerketa Saria jaso izanaren agiri egiaztatzailea eskuratuko zaio sarituari, baina betiere behin epaimahaiak ikerlana aztertu eta ontzat emango balu, besterik ez.

Nolanahi ere, lehenetasuna izango dute beste inolako sari edo laguntzarik, publiko zein pribaturik, ez duten ikerlan egitasmoek.

LAUGARRENA.- Ikerlan egitasmoa

Ikerlariak sarira aurkezteko egitasmoa aurkeztu beharko du, horren bidez adieraziz zein gai aztertu eta landu nahi duen, ikerkizunari buruzko ondoko xehetasunak eskainiz:

- ❖ Ikerlanari buruzko laburpena, ikerlanaren abiapuntua edo zioa eta helburuak zein diren azalduz.
- ❖ Ikerlaneko atalak zehaztea (aurkibide proposamena).
- ❖ Ikerlana egiteko erabiliko dituen iturri bibliografiko eta agiritze-gietakoak, eta iturritzat jo litekeen beste nolana-hikoa.
- ❖ Landa-lanik egitekotan balitz, landa-lan horiei buruzko oinarritzko xehetasunak.
- ❖ Ikerlana irakasle edo beste ikerlariren baten zuzendaritzapean egitekotan balitz, zuzendariaren izena eta ikerlanarekiko duen ardura.

Aipatu xehetasun guztiak, gehienez ere sei orrialdeko txos-tenean jasoko dira, eta eskaerarekin batera aurkeztuko dira. Dena den, ikerlan egitasmoari buruzko aipatu txostena ikerla-riaren izen-deiturarik edo nortasun xehetasunik adierazi gabe aurkeztu beharko da. Gainera, eskaera eta txostenarekin batera, eskatzaileak bere curriculum vitae ere aurkeztu beharko du, eta lantaldean egindako ikerlana baldin bada, taldekide guztiei buruzko nortasun xehetasun eta curriculumak.

BOSGARRENA.- Eskaerak aurkeztea

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 17an amaituko da, eta honako helbidera eraman behar dira edota bertara posta bidez bidali:

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
III. Manuel Larramendi Ikerketa Saria
Dr. Huizi kalea, 15-1. 20.140 ANDOAIN

Eskaerarekin batera goian aipaturiko txostena eta curricu-luma, nola eskatzaileak egoki iritzi-tako bestelako agiriari ere aurkeztu behar dira.

Posta elektronikoa erabili nahi izanez gero, helbide honetara bidali behar dira: bazkuna@larramendi.org

SEIGARRENA.- Epaimahaia eta erabakia

Saria ondoko kideek osaturiko epaimahaiak erabakiko du:

- ❖ Epaimahaiburu: Jon Unanue López, Larramendi Bazkuneko lehendakaria, edo kargu horretan dagokiona.
 - ❖ Epaimahaikide: Blanca Urgell Lázaro, Mikel Aizpuru Murua eta Jose Antonio Rodríguez Ranz unibertsitate irakasleak eta Garbiñe Agirre Azpiazu kultura aditua.
 - ❖ Idazkaria: Aitor Amutxastegi, Bazkuneko idazkaria bera, hitzez baina boturik gabe jandungo duena.
- Epaimahaiak azken erabakia kideen arteko bi herenen aldeko botuez hartu beharko du, 2019ko ekainaren 21a aurretik.

Epaimahaiak sari deialdi hau hutsik utzi ahal izango du, aurkezturiko ikerketa egitasmoen artean bere iritzi-z nahikoa mailakorik hautemango ez balu. Epaimahaiaren erabakia ape-laezina izango da.

ZAZPIGARRENA.- Ikerlana aurkezteko epea

Saria jasotzen duen ikerlariak **2020ko ekainaren 30a** baino lehen eskuratu beharko dio lana epaimahaiari, hala paperean inprima-turik nola euskarri informatikoan edo ikusentzunezkoan. Behin aurkeztutako ikerlana aztertu eta horren gaineko iritzia osatu ondoren, epaimahaiak irailaren 15a baino lehen hartuko du bere erabakia, eta horren arabera ordainduko zaio egileari sariaren biga-rren zatia. Horren arabera erabakiko du Larramendi Bazkunak, ikerlanari eman beharreko zabalkunde bidea ere.

ZORTZIGARRENA.- Ikerlana argitaratzea

Epaimahaiak aurkezturiko ikerlana ontzat eman arren, argi-taratzeko garaian ezinbesteko baldintza izango da zabalkundeari begira bermatu beharreko testuen ulergarritasuna, lanaren maila zientifikoaren kaltetan etorriko ez dena baina.

Epaimahaiak proposaturikoari jarraiki Larramendi Bazku-nak erabakiko balu ikerlana bere argitalpen bilduman argitara ematea, dirulaguntzaz ordaindu eta kitatutzat joko ditu lehen argitaraldiari dagozkion egile eskubideak, bere esku geratuko baitira ondorio guztietarako, betiere Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak ebatzitako baldintza eta salbuespenen arabera.

Epaimahaiak ikerlana ontzat eman ondorengo bi urteko epean MLKB-ak argitara emango ez balu, egileak oinarri hauen bidez argitaratzeko bere esku utzitako eskubideak guztiz gal-duko ditu MLKB-ak.

BEDERATZIGARRENA.- Oinarriak onartzea

Deialdi honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar bera-reakin, eta diru-saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkaturikoak osorik betetzea.

Andoain, 2019, otsailak 10



Babesle



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako
Zuzendaritza

III Manuel Larramendi

IKERKETA SARIA 2019



*E*ztaquit, cer esain dizutedan.
Aspaldi nabil nola Euskal
Erriac edertu, ta jasoco ditudan.
Bost gau illun, eta bost egun argui
iragoac ditut equiteco onetan; baita gure eusquera,
izcuntza gucien zarrena aien garai nola ezarrico
dedan. Baña ezta sinistecoa cer guertacen zatan.
Batzuec diote bestelaco lan charretan nabillela.
Ezta ecer; oiec jaquiñezac dirade, cer darausquioten
ere eztaquitenac. Besteac obeco nuqueala ichequi
beargai goragoren ta ederragoren bati. Ezta anitz;
oiec alperpotzac dira beroc, ez gorago, ez berago dan
lanic uquitu ere nai eztutenac. Elaquio, itzoncia,
beargai char diocan horri, ta ara ni ichequico nacheoc
prestuagoari. Aimbeste urtean neabilec ezagutu
naiez gure hizcuntza miragarriaren chitezcoac, ta
etzeatiet oraindican osoro ezagutu; ain dec beargai
hau andi, larria. Eta lotsacen ez aiz hi ta hire
lagun oroitzar horiek, lan charra deitzea lanic gaitzen
ta latzenari? Hi ta hire balleracoac besteric
expaliz mendarte oietan, eusqueraren saietsetic
euscaldunoc galduac, baita ondatuac ere guinduec,
erdaldunen becaitzez, ecin ecusiaz, ta juzcu gaiztoz.
Baldin elcar artzen baguendu gucioc, nor bere
sallari dichecala, Francian icaratuco quintuque
franciar guciac, ta Espanian espaniar guciac. Non
da ordea elcarte hori? Nagoan isillik. Nere min
garratzena da, are extacuzcula onetatic darraizcun
calteac eta gaitzac; eta, dirudienez, ezagutuco ere
eztitugula, ditugun on piscac galdu ditzagun artean.»

Manuel Larramendi
Euskaldunoi batasun eske,

1756. urte aldera idatzia.